

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuari hasiera bat emateko eta ondoren aurrera jarraitzeko, zenbait material fisiko zein ez fisikoen erosketaz arduratu beharko gara. Gure kostuak hiru ataletan ezberdinfuko ditugu; hasierako kostuak, kostu aldakorak eta kostu finkoetan hain zuzen ere.

Hasieran izango ditugun kostuak:

<u>Erosi behar duguna</u>	<u>Prezioa eta kopurua</u>	<u>Diru totala</u>
Txirringak	200€ * 4	800€
Webgunea	3000€ * 1	3000€
Txirringak zutik mantentzeko hankak	16€ * 4	64€
Telefono fijo bat	40€ * 1	40€
Ordenagailu bat	500€ * 1	500€
Alargadore bat (kableak hobeto antolatuta izateko)	10€ * 1	10€
Errueden inflagailua	50€ * 1	50€
	<u>Guztira:</u>	4464€

Kostu finkoei dagokionez:

	<u>Hilabetean</u>	<u>Urtean</u>
Lokalaren alokairua	30€	30 * 12 = 360€
Soldatak: - Banaketaz arduratuko direnak - Webguneaz arduratuko direnak - Logistikaren arduradunak - Giza baliabideen arduradunak	1000€ * 4 = 4000€ 1200€ * 2 = 2400€ 1200€ * 2 = 2400€ 1100€ * 3 = 3300€	48.000€ 28.800€ 28.800€ 39.600€
Webgunea	60€	60 x 12= 720€
Txirringuen segurua	100€ * 4 = 400€	4.800€
<u>Guztira</u>	12.590€	151.080€

Goiko taulak adierazten duten bezala, urtero izango genituzken kostu aldakor eta finkoak 151.080€ pasa izango lirateke, izan ere, kostu aldakorrak aurreikusi ezin ditzakegun arren topatu ditzakegu. Kostu aldakor horien artean, ibilgailuak (furgonetak) beharko lukeen gasolina da, erabileraren arabera kopurua handitu hala murriztu egin daitekeelako.

Lehenengo urtearen inbertsioari dagokionez, urtero izango genukeen kostu finkoaren eta hasierako kostuaren batuketaren bidez eskuratu dugu. Taulako datuak kontuan izanik, lehenengo urtean guztira 155.544€ inguru gastatuko genituzke.

